



Usurbilgo Udala

Data: 2023/09/28

## **2023KO IRAILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

### **BERTARATUAK**

#### **Alkate-Lehendakaria**

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### **Zinegotziak**

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Xabat Beloki Segurola  
Iratxe Begiristain Otegi  
Xabier Aranburu Leiva  
Jose Maria Lizaso Azconobieta  
Oskar Santamaria Picabea  
Xabier Otxoa Muñoz  
Ivan Iriondo Axpe  
Josune Urkola Larrarte  
Petra Romero Pozo

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel.

**Kontu-hartzailea:** Gorka Lizarraga Erro.

Ez da bertaratu: Maialen Iñarra Arregi.

Usurbilen, 2023ko irailaren 28an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

### **1.- 2023KO UZTAILAREN 20KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

Batzarkideek 2023ko uztailaren 20ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/09/28

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2023KO UZTAILAREN 17TIK IRAILAREN 22RA (2023/734-2023/941).**

Alkatetzak 2023ko uztailaren 17tik irailaren 22ra bitartean (2023/734-2023/941) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- 5. ETA 7. KREDITU ALDAKETEN ESPEDIENTEEN BERRI EMATEA (2023EKKA0005-2023EKKA0007).**

Batzarkideei 5. eta 7. kreditu aldaketen espedienteen berri eman zaie eta hauek jakinaren gainean geratu dira.

## **4.- 6. KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA (2023EKKA0006).**

Batzarkideek Antolaketa Batzorde Informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute:

“Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Kreditu gehigarriak finantzatuko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.

Halaber, Kontu-hartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu dugu.

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, Batzorde honek adostu du aipatutako espedientea ontzat ematea Aldeko bozkak EHBildu (3), PSE (1) eta abstentzio bozka EAJ (1) izanda.

Beraz, organo eskudunari proposatzen da kreditu gehigarriak, 862.500,00 eurokoak, behin betiko onar ditzala.

Udalbatzarrak Antolaketa batzordearen irizpena kontuan hartuta, gehiengoz onartu du 6. kreditu aldaketaren espedientea onartzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea eta Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/09/28

Abstentzioa: Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

#### **5.- MOZIOA: VIVIMOS UN MOMENTO CRUCIAL PARA LAS PRÓXIMAS GENERACIONES (2023IMOZ0001).**

Antolaketa Batzordeko 2023ko irailaren 20ko ezohiko bilkuran 9. puntuan Bizitza-Usurbil elkarteak aurkezturiko "Vivimos un momento crucial para las próximas generaciones" mozioa eztabaidatu zen. Ondorioz, batzorde honek adostu zuen aipatutako mozioa ukatzea: Kontrako bozkek EHBildu (3), PSE (1) eta EAJ (1) izanda.

Udalbatzarrak mozioa aztertuta eta Antolaketa Batzordeko irizpena kontuan hartuta, mozioa ez onartzea erabaki du aho batez.

Honela izan da bozketa:

Kontrako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, mozioa ez da onartu aho batez.

#### **6.- MOZIOA: USURBIL PROIEKTUA ELIKADURA SUBIRANOTASUNA LORTZEKO (2023IMOZ0003).**

Antolaketa Batzordeko 2023ko irailaren 20ko ezohiko deialdian 10. puntuan Bizitza-Usurbil elkarteak aurkezturiko "Usurbil Proiektua Elikadura Subiranotasuna Lortzeko eta Estudio Generación centralizada de energías renovables en Kalezar" mozioa eztabaidatu zen. Ondorioz, batzorde honek adostu zuen aipatutako mozioa ukatzea: Kontrako bozkek EHBildu (3), PSE (1) eta EAJ (1) izanda.

Udalbatzarrak mozioa aztertuta eta Antolaketa Batzordeko irizpena kontuan hartuta, mozioa ez onartzea erabaki du aho batez.

Honela izan da bozketa:

Kontrako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.



Usurbilgo Udala

Data: 2023/09/28

Beraz, mozioa ez da onartu aho batez.

## **7.- MOZIOA: AUDITORÍA CAUSAS EXCESO DE MORTALIDAD (2023IM0Z0002).**

Antolaketa Batzordeko 2023ko irailaren 20ko ezohiko bilkuran 11. puntuan Bizitza-Usurbil elkarteak aurkezturiko "Auditoría causas exceso de mortalidad" mozioa eztabaidatu zen. Ondorioz, batzorde honek adostu du aipatutako mozioa ukatzea: Kontrako bozkak EHBildu (3), PSE (1) eta EAJ (1) izanda.

Udalbatzarrak mozioa aztertuta eta Antolaketa Batzordeko irizpena kontuan hartuta, mozioa ez onartzea erabaki du aho batez.

Honela izan da bozketa:

Kontrako botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Xabier Otxoa Muñoz, Ivan Iriondo Axpe, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, mozioa ez da onartu aho batez.

## **8.- GALDERA-ESKAERAK.**

Ez dago.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:30ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**